



# KOLOREEN MINTZAIRA

## 6.- Koloreen kalitateak

Gida didaktikoa

## 6.- Koloreen kalitateak

Mila pertsona jartzen baditugu koadro baten aurrean, koadroaren antzeko mila irudi lortu beharko genituzke. Baina hori ez da horrela gertatzen. Izan ere, koloreek pertsoneri botere hirukoitzaz eragiten diete:

Asaldatzeko, erasotzeko edo arreta bereganatzeko boterea.

Adierazpen boterea, emozioa eragiteko edo adierazteko.

Eraikitze boterea, kolore bakoitzak bere esanahia duelako.

Bideo honetan, adibide praktikoan bitartez, koloreen ezaugarriak aztertzen dira. Lantegia atalean, hainbat ariketa erraz egingo dira, kolorearen efektuak egiaztatzeko.

*Bideoa ikusi aurretik, doitu zure telebistaren sintonia, kroma, distira eta kontrastea, gida honetako NOIZ ETA NOLA ERABILI atalean esan bezala.*

02:00:00	- Sarrera.
04:38:03	- Ikusmena.
05:46:15	- Harmonia eta kontrastea. Kolore harmonikoak. Kolore kontrastatuak. Kolore neutroak.
11:11:24	- Kolore beroak eta kolore hotzak.
12:51:09	- Koloreen indarra. Aldi bereko kontrastea.
23:02:01	- Lantegia: kolorearen efektuak.

### **Lantegia: kolorearen efektuak.**

Lantegia atala ikusi, eta lanerako beharko ditugun materialak prestatu ondoren, ariketa egiteko moduan izango gara.

Erabiliko ditugun materialak:

Kartoizko hiru kubo txiki.

Kolore primarioz eta sekundarioz margotutako paperak.

Paper grisa eta neutroa. Guraizeak. Labana. Lekeda.

**Kolore harmonikoak.** Harmonia adierazten duten konposizio bateko kolore multzoa.

**Kolore beroak.** Berotasuna adierazi ohi duten koloreei deitzen diegu kolore beroak: horiei, laranjaiei, gorriei eta more gorrixka batzuei.

**Kolore osagarriak.** Zirkulu kromatikoan kolore primarioen aurrean daudenak: berdea, gorria eta urdina.

**Kolore hotzak.** Hoztasuna adierazi ohi duten koloreei deitzen diegu kolore hotzak: berdeei, zianei, urdinei eta more urdinxka batzuei.

**Kolore primarioak.** Nahasketarik ez duten koloreak. Oinarrizko kolore ere deitzen zaie. Horia, magenta eta ziana dira.

**Aldi bereko kontrastea.** Ikusmenean eratzten den efektua. Aldi bereko kontrastea dela medio, oharkabea, begiratzen dugun kolorearen osagarria ikusten dugu.

## LIBURUAK

¿Qué es la luz?	Heel. Guadarrama. Madrid-1968
El color del aire libre	Wels. Omega. Bartzelona-1965
Luz visible y luz invisible	Ruechardt. Labor. Bartzelona-1960
El gran libro del color	Blume. Madrid-1990
Arte y percepción visual	Arnheim. Alianza. Madrid-1979
La interacción del color	Albers. Alianza. Madrid-1979
El lenguaje del color	Sanz. Blume. Madrid-1985

Koloreen mintzaira eta koloreek ematen duten informazioa etengabe aldatzen ari da. Horregatik, goian aipatu liburuak oso garrantzitsuak izan arren, bada beste bat, gu geu egunero osatzen ahaleginduko gara. Ikasleak lantegi orduan egingo dituen ariketa eta haien gaineko oharrek jasoko dituen koadernoaz ari gara. Horixe izango da, ez izan dudarik, koloreen gaineko gure ohar biltegirik onena.

Ekoizlea:

**iadi**

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

2003-05-22